



Motorola EX300-aren

Bizkor hasteko gida

www.motorola.com

Euskaltelek itzultako eta
ekoiztutako eskuliburua



Zorionak!

Hitz egitea edo mezuak bidaltzea gogoko baduzu edo musika entzuten ari zarela paseatzea gogoko baduzu, EX300 da behar duzuna.


Gida erabilgarri honetan jarri ditugu zure telefonoaren funtzio nagusiak, zurekin eraman ahal izan dezazun.

EX300 berria erabiltzeko moduari buruzko informazio gehiago jaso nahi baduzu, ikus **www.motorola.com/support**.

Has gaitezen.

Oharra: baliteke telefonoak ez izatea eskuliburu honetako irudien itxura bera. Baina funtzioak, sekuentziak eta kokapenak berdinak dira.

Telefonoa




* Herrialdearen arabera

Mezuak


SMS bat edo MMS bat bidaltzea

1 Sakatu  >  **Mensajes** > **Crear mensaje**.

2 Idatzi mezua.


Aholkua: sakatu  maiuskuletatik minuskuletara eta alderantziz pasatzeko, edo sakatu **T9** idazteko modua aldatzeko.

3 Sakatu **OK** mezua idatzi duzunean. Sakatu pantailaren beheko aldeko ikonoak argazkiak, bideoak eta gehiago txertatzeko.

4 Sakatu  > **Añadir de contactos** edo **Intr. Número**.

5 Sakatu **Enviar**.

Mezuak irakurtzea

Mezu bat jasotzen duzunean, pantailan  **1 Mensj no leído** bistaratuko da. Ukitu mezua irekitzeko.

Deiak

Deiak egitea



Idatzi zenbaki bat eta sakatu .

Deiak erantzutea




Telefonoak jotzean edo dar-dar egitean, sakatu .

Dei bat amaitzea



Sakatu .

Zenbakia berriro markatzea

1 Hasierako pantailan, sakatu  egindako azken deien zerrenda ikusteko.

2 Mugitu nahi duzun sarreraraino, eta sakatu .

Larrialdi-deiak



Larrialdietarako zenbaki batera deitzeko, sartu larrialdietarako zenbakia, eta sakatu ☺.

Zerbitzu-hornitzaileak larrialdietarako telefonoak programatzen ditu, adibidez, 112 zenbakia edo 911. Zenbaki horietara edozein unetan deitu dezakezu, baita telefonoa blokeatuta dagoenean ere.

Larrialdietako zenbakiak aldatu egiten dira herrialde batetik bestera. Gerta daiteke programatutako larrialdietako zenbakiak leku guztietan ez funtzionatzea, eta batzuetan ezin da larrialdietako deirik egin sareko arazoaren eraginez, ingurunearen eraginez edo interferentzien eraginez.

Aholkuak eta iradokizunak



Egindako azken deiak

Egindako, jasotako eta galdutako deiak ikusteko, sakatu ☺ pantaila nagusian.

Widget-ak gehitzea

Pantaila nagusian widget-ak gehitzeko (esaterako, **musika-erreproduzitaile bat**, **Google-ren bilatzailea** eta **egutegia**), luze sakatu pantailako leku huts bat, **widget**-en menua ikusi arte.



Teklatua automatikoki blokeatzea

Teklatua automatikoki blokeatzeko, sakatu  > 
Ajustes > Ajustes teléfono > Bloc. Auto teclado.

Ahots-postontzia

Pantaila nagusian, sakatu  , eta, ondoren, luze sakatu **1**. Ahots-postontziaren zenbakia aurrez definituta badago, zuzenean konektatuko da.

Atzealdeko argiaren denbora

Argia piztuta zenba denbora egongo den zehazteko, sakatu  >  **Ajustes > Ajustes pantalla > Tiempo luz de fondo.**

Musika

Musika-erreprouduzitailea erabiltzeko, sartu microSD memoria-txartela (aukerakoa). Musika-erreprouduzitaileak MP3, MIDI, eta AMR musika-formatuak onartzen ditu.



Musika erreproduzitzea

Sakatu  >  **Música.**

Kontrolak

Funtzioa	
Erreproduzitu / gelditu	Sakatu  /  .
Aurreko/hurrengo abestia	Sakatu  /  .
Bolumena	Sakatu bolumenaren alboko tekla gorantz edo beherantz .

Aholkua: erreproduzio-zerrenda bat sortzeko, zehaztu abestia txirrin moduan, eta sakatu **Opciones**.

Aholkua: microSD memoria-txartelean gordetako musikara sartzeko, sakatu  >  **Mis archivos** > **Tarjeta de memoria.**

Menuaren mapa

Agenda

Mezuak

- Sortu mezua
- Jasotakoak
- Zirriborroak
- Bidalitakoak
- Irteerako ontzia
- Posta elektronikoa
- Txantiloiak
- Hedapeneko zerbitzua
- Ezarpenak

Musika

Nire fitxategiak

- Telefonoa
- Memoria-txartela

Tresnak

- Alarmak
- Egutegia
- Nire gogorarazpenak
- Ohar-bloka
- Ordu-eremua
- Ahots-grabagailua
- Kalkulagailua
- Bihurgailua
- Kronometroa
- Tenporizadorea
- Sinkronizazioa

Kamera

Deiak

- Guztiak
- Galdutakoak
- Jasotakoak
- Egindakoak

FM irratia

Ezarpenak

- Profilak
- Telefonoaren ezarpenak
- Pantailaren konfigurazioa
- Ukipen-ezarpenak
- Deien konfigurazioa
- Konektagarritasuna
- Sarea
- Aplikazioak
- Segurtasuna

Aplikazioak

Google Maps

Interaktiboa


Menu nagusi estandarraren diseinua da hau. Zure telefonoaren menua alda daiteke zertxobait.

Has gaitezen


1 Kendu tapa



2 Sartu SIM txartela



3 Sartu microSD txartela



4 Sartu bateria



5 Jarri tapa




6 Kargatu



Oinarrizkoak


Piztea eta itzaltzea


Sakatu  (telefonoaren goiko aldean) segundo batzuez, telefonoa piztu edo itzultzeko.

Ukipen-ekintzei buruzko aholkuak

- **Sakatzea:** ikono bat edo ekintza bat hautatzeko, *sakatu ezazu*.
- **Luze sakatzea:** aukera bereziak irekitzeko, *sakatu luze* ikono bat edo beste elementu bat.
- **Arrastatzea:** zerrenda batean gora eta behera mugitzeko edo poliki mugitzeko, *arrastatu* hatza ukipen-pantailan zehar.
- **Lerratzea:** zerrenda batean gora eta behera lerratzeko edo azkar mugitzeko, *arrastatu* hatza ukipen-pantailan zehar (arrastatu azkar eta askatu).

Menuan nabigatzea



Nabarmendutako aukera hautatzeko, sakatu pantaila nagusiko erdiko tekla  edo sakatu nabarmendutako aukera ukipen-pantailan.

Sakatu nabigazio-tekla  **gora, behera, ezkerrera** edo **eskuinera** menuko aukera bat nabarmentzeko, edo lerratu hatza **gora, behera, ezkerrera** edo **eskuinera** aukera nabarmentzeko.

Pertsonalizatzea

Pantailaren atzealdea konfiguratzeko

Aldatu pantailaren atzealdea, eta jarri irribarre eginarazten dizun bat.

Sakatu  >  **Ajustes** > **Ajustes de pantalla** > **Fondo de pantalla**.

Data eta ordua konfiguratzeko

Sakatu  >  **Ajustes** > **Ajustar teléfono** > **Fecha y hora**.

Txirrina eta bolumena konfiguratzeko


Igo edo jaitsi txirrinaren bolumena nahi adina..

Sakatu  >  **Ajustes** > **Perfiles**.

Hautatu profil bat. Sakatu **Editar**, profil bat editatzeko.



Automatikoki itzaltzea konfiguratzeko

Hautatu noiz jaso nahi dituzun deiak eta mezuak, oso erabilgarria da:



Sakatu  >  **Ajustes** > **Ajustes teléfono** > **Apagado automático**.

Kokapena eta nabigazioa

Zure kokapena aurkitzea



Sakatu  >  **Google Maps** > **Menú** > **Mi ubicación**. Honela agertuko da zure kokapena mapan: . Zirkulua zenbat eta handiagoa izan, kokapenak orduan eta zehaztasun gutxiago izango du.

Edozein kokapen aurkitzea

- 1 Sakatu  >  **Google Maps** > **Menú** > **Buscar en el mapa**.
- 2 Idatzi testua bilaketa-mapan: helbide bat, negozio bat edo hiri bat.


- 3 Sakatu **OK**.

Azalpenak eskuratzea






- 1 Sakatu  >  **Google Maps** > **Menú** > **Cómo llegar**.
- 2 Sartu **irteera-puntu** bat eta **helburuko puntu** bat.
- 3 Hautatu garraio-modua (**Indicaciones**, **Tránsito** edo **A pie**), eta, ondoren, sakatu **Mostrar indicaciones**.
- 4 Amaitutakoan, sakatu **Menú** > **Borrar resultados**.

Kontaktuak

Kontaktuak gordetzea



- 1 Pantaila nagusian, sakatu  > **Teléfono** > *Intr. número* > **Opciones** > **Guardar número**.
- 2 Hautatu kontaktua **telefonoan** edo **SIM** txartelean gorde nahi duzun, eta, ondoren, sartu kontaktuaren datuak eta sakatu **Guardar**.

Kontaktuei deitzea

- 1 Sakatu  >  **Contactos**.
- 2 Sakatu  **gora** edo **behera**, zerrendan leku batetik bestera mugitzeko eta kontaktuaren zenbakia nabarmentzeko.
Aholkua: sakatu  **eskuinera** edo **ezkerrera**, kontaktuen eta taldeen artean aldatzeko.
- 3 Sakatu .






Bluetooth[™]


Gailu berriak konektatzea


- 1 Ziurtatu sinkronizatzen ari den gailua visible egoeran dagoela.
- 2 Sakatu  >  **Ajustes** > **Conectividad** > **Bluetooth** > **Buscar dispositivos**.
- 3 Bere irismen-erradioan aurkitutako gailuen zerrenda bistaratuko du telefonoak. Sakatu gailu baten izena, konexioa egiteko.
- 4 Beharrezkoa bada, sakatu **Sí** edo **OK**, edo idatzi gailuaren sarbide.gakoa (esaterako, **0000**) gailu horretara konektatzeko.

Telefonoa sinkronizatutako gailu batekin **berriro automatikoki konektatzeko**, piztu gailua. Telefonoa sinkronizatutako gailu batekin **automatikoki deskonektatzeko**, itzali gailua. Multimedia-fitxategi bat edo kontaktu bat **bidaltzeko**, ireki bidali nahi duzun elementua eta sakatu **Opciones** > **Enviar** > **Por Bluetooth**.


Argazkiak eta bideoak

- 1 Kamerara sartzeko, sakatu  >  > **Cámara**.
Bideokamerara sartzeko, sakatu  >  > **Videocámara**.
- 2 Argazki bat ateratzeko edo bideoa hasteko/eteteko, sakatu .

Argazkia pantailaren **atzealde moduan** edo **kontaktu-irudi** moduan zehazteko, sakatu .

Argazkia edo bideoa **mezu** bidez, **posta elektronikoko** bidez edo **Bluetooth** bidez bidaltzeko, sakatu .

Bideoa **erreproduzitzeko**, sakatu .



Argazkia edo bideoa **ezabatzeko**, sakatu .



Bisorera itzultzeko, sakatu .

Argazkiak edo bideoak zure memoria-txartelera edo memoria-txarteletik **transferitzeko**, erabili microSD txartelen irakurgailua ordenagailuan.

Posta elektronikoa eta Internet

Posta elektronikoa



Posta elektronikoa **konfiguratzeko**, sakatu  >  **Mensajes > Email**, eta jarraitu pantailan ageri diren jarraibideei.




Postaren sarrerako ontzia ikusteko, sakatu  >  **Mensajes > Email > Cuenta de correo**.

Aholkua: sakatu **Opciones > Extraer URLa** edo telefono-zenbakiak posta elektronikoko mezuetan kopiatzeko.

Interneten nabigatzea

Oharra: zure beharrak asetzen dituen datu-plan bat eskuratzea aholkatzen dizugu. Informazio gehiago behar baduzu, galdetu zerbitzu-hornitzaileari.

- 1 Pantaila nagusian, sakatu , eta, ondoren, idatzi webgunearen helbidea.
- 2 Sakatu .

Webgune bat **gogokoen** karpetan gordetzeko, sakatu  > **Mis favorit. Hurbiltzeko/urruntzeko**, sakatu . Leihobat ixteko edo irekita dauden leiho batetik bestera **aldatzeko**, sakatu  > **Ventana > Cerrar ventana** edo **Cambiar ventana**.

PCarekin konektatzea

Telefonoa modem moduan erabiltzeko, konektatu telefonoa PCra USB kablearen bidez, eta, ondoren:

- 1 Egiaztatu USB gailua PCaren gailu-kudeatzailean ageri dela.
- 2 Interneteko konexioa konfiguratzeko, erabili PCko Windows-en Interneterako laguntzailea, edo instalatu eta exekutatu telefonoaren Interneterako laguntza-aplikazioa.

Oharra: Windows 2007™, Windows XP™, Windows 7™ eta Windows Vista™-k soilik onartzen dute funtzio hori.

Telefonoaren SD txartelean gordetako fitxategiak irekitzeko:

- 1 Sartu microSD txartela telefonoan, eta, ondoren, konektatu telefonoa PCra USB txartelaren bidez.
- 2 Hautatu **Transferencia de archivos** PCan, eta jarraitu argibideei: Telefonoa desconectado egoerara pasatuko da Transferecia de archivos modua aktibatzean.

Aholkua: PC Suite deskargatzeko, joan hona:

<http://vywww.motorola.com/mypcsuite>.

Oharra: gerta dauteke USB kablea edo microSD txartela hautazko osagarriak izatea, eta telefonoarekin batera ez egotea.

Bateria erabiltzea eta haren segurtasuna

Garrantzitsua: bateriak zuzen erabili eta gorde behar dira kalteak edo lesioak saihesteko. Bateriekin erlazionatutako arazo gehienak sortzen dira horiek gaizki erabiltzeagatik, eta, bereziki, bateria kaltetuak etengabe erabiltzeagatik.

EGIN BEHAR EZ DENA

- **Bateria ez desmuntatu, kolpatu, zulatu, ebaki edo beste aldaketarik eragin.**
- **Ez busti gailua eta bateria*.** Ura gailuaren zirkuituetan sar daiteke, eta korrosioa eragin dezake. Bateria edo gailua bustiz gero, eraman ezazu zerbitzuen hornitzaileari azter ditzan edo jarri harremanetan Motorolarekin, ongi funtzionatzen duen arren.
- **Ez utzi bateria objektu metalikoekin kontaktuan.** Objektu metalikoak - bitxiak, esaterako – bateriaren kontaktu-puntuak luzez kontaktuan badaude, bateria asko berotu daiteke.
- **Ez jarri gailua eta bateria bero-iturri batetik gertu*.** Berotasun gehiegi izateak gailua edo bateria honda dezake. Tenperatua altuek bateria puzte, isuriak izatea edo ongi ez funtzionatzea eragin dezakete. Beraz:
- **Ez lehortu bateria bero-iturri edo aparatu elektriko baten bidez,** adibidez, ile-lehorgailu edo mikrouhin-labe baten bidez.

EGIN BEHAR DENA

- **Ez utzi gailua kotxean tenperatura altua denean*.**
- **Ez utzi erortzen bateria edo gailua*.** Erortzen uzten badituzu –batez ere, gainazal gogor baten gainera erortzen badira– hondatu egin daitezke.
- **Jarri harremanetan operadorearekin edo Motorolarekin erorketa baten edo tenperatura altuen ondorioz gailua hondatzen bada.**

***Oharra:** Beti egiaztatu bateriaren konpartimendua itxita dagoela, horrek aipatu diren kondizioetako edozeinekin zuzeneko kontaktua saihesteko.

Garrantzitsua: erabili **Motorola Original** produktuak, kalitatea eta segurtasuna bermatzeko. Motorolak hologramak erabiltzen ditu bere baterietan, erabiltzaileek bateria originalak eta faltsutzeak bereizi ditzan (baliteke azken horien segurtasun-babesa egokia ez izatea). Kontsumitzaileek egiaztatu behar dute erosten duten bateriak "Motorola Original" holograma duela.

Motorola markako kargagailuak eta bateriak erabiltzea gomendatzen dizu Motorolak. Motorola bateriekin funtzionatzeko diseinatuta daude Motorola gailuak. Pantailan, **Bateria no válida, No se puede cargar,** edo antzeko mezuren bat agertzen bada, jarraitu urrats hauei:

- Atera bateria eta egiaztatu "Motorola Original" holograma duela.
- Hologramarik ez badu, ez da Motorola bat.
- Holograma badu, jarri berrito bateria, eta saiatu berrito kargatzen.
- Mezua berriz agertzen bada, jar zaitez harremanetan Motorolak baimendutako zerbitzu-zentro batekin.

Garrantzitsua: Motorolaren bermeak ez ditu estaltzen Motorolarenak ez dira bateriak edo kargagailuak erabiltzeagatik gailuak izan ditzakeen kalteak.

Oharra: Motorolarenak ez diren bateriak edo kargagailuak erabiliz gero, suteak, leherketak, ihesak edo beste zenbait gertaera izateko arriskua dago.

Bateria zuzen eta era seguruan botatzeko eta birziklatzeko modua: bateria zuzen botatzea segurtasunerako garrantzitsua izateaz gain, ingurumenerako garrantzitsua ere bada. Kontsumitzaileek saltokietan edo operadoreen instalazioetan birzikla ditzakete bateriak. Web-orri hauetan aurkituko duzu bateriak zuzen botatzeko eta birziklatzeko informazio gehiago:

- www.raotorQla.com/ifjfcycling
- www.rbrco.org/call2recycle (ingelesez soilik)

Botatzea: bota berehala erabilitako bateriak, tokiko araudiaren arabera. Jarri harremanetan tokiko birziklatze-zentroarekin edo nazio mailako birziklatze-erakundeekin, bateriak botatzeko moduari buruzko informazio gehiago jasotzeko.



Oharra: ez bota inoiz bateriak sutara, leheritu egin baitaitezke.

Bateria kargatzea

Produktuaren bateria kargatzearekin loturiko alderdiak:

- Kargatzen ari denean, eduki bateria giro-temperaturan. Ez eduki bateria 0°C baino gutxiagoko edo 45°C baino gehiagoko temperaturan kargatzen ari denean.
- Bateria berriak ez dira guztiz kargatuta egoten.
- Bateria berriek edo denbora askoan biltegian egin direnek, agian, denbora gehiago beharko dute kargatzen.
- Bateria gehiegizko kargak eragindako kalteetatik babesten duten zirkuituak dituzte Motorola bateriek eta kargatze-sistemek.

Gidatzean hartu beharreko neurriak

Segurtasunez eta arduraz gidatzea da zure ardura nagusia auto bat gidatzen ari zarenean. Gidatzen ari zarenean dei bat egiteko gailu mugikorrek edo mugikorren osagarriak erabiltzeko arreta galtzea eragin dezake. Osagarri edo gailu mugikor bat erabiltzea debekatuta edo mugatuta egon daiteke eremu batzuetan. Egin kasu beti horrelako produktuen erabilera arautzen duten lege eta arauak.

Gidatzean, INOIZ EZ egin ekintza hauek:

- Ez idatzi eta ez irakurri mezurik.
- Ez idatzi daturik eta ez berrikusi idatzitako datuak.

- Ez nabigatu Interneten.
- Ez idatzi nabigazio-informaziorik.
- Ez egin zure arreta galaraz dezaketen beste zenbait funtzio.

Gidatzean, BETI egin ekintza hauek:

- Begiratu errepidera.
- Erabili esku libreko gailu bat eskuragarri baduzu edo zure eremuan legeak hala behartzen badu.
- Sartu helburuko informazioa nabigazio-gailuan gidatzen **hasi aurretik**.
- Erabili ahots bidez aktibatzen diren funtzioak (esaterako, ahots bidez markatzea) eta ahots bidezko funtzioak (adibidez, ohar soinu-dunak), erabilgarri badaude.
- Errespetatu autoan mugikorrek eta horien osagarriak erabiltzeari buruzko herrialdeko legeak eta arauak.
- Ezin baduzu arreta gidatzean jarri, amaitu deia edo egiten ari zaren zeregina. Gogoan izan arduraz gidatzeko argibideei jarraitu behar diezula; gida honetan eta www.motorola.co.in/cailsmart webgunean aurkituko dituzu (ingelesez soilik).

Absortzio Espezifikoko Koeffizientea (ICNIRP)

Hari-rik gabeko telefono-modelo honek irrati-uhinekiko esposizioaren inguruko nazioarteko arauak betetzen ditu.

Zure gailu mugikorra irrati-uhinen transmisioa eta hartzailea da. Irrati-uhinen eragina jasateko nazioarteko araudian finkatutako mugak ez gainditzeko diseinatuta dago. Arau horiek ICNIRP zientzia-erakunde independenteak garatu ditu eta pertsona ororen —adina eta osasun-egoera gorabehera— segurtasuna ziurtatzeko, eta neurketetan izan daitezkeen aldaketak kontuan izateko ere, diseinatutako segurtasun-tarteak dituzte. Araudi horiek Absortzio Espezifikoko Koeffizientea (SAR) izeneko neurri-unitateak ibiltzen dute. Jendeak erabiltzen dituen mugikorretarako ICNIRPek ezarritako SAR mugak 2 W/kg da, eta belarrian erabiliz egindako probatan gailu honek emandako SAR balio altuena 0,649 W/kg* da. Gailu mugikorrek funtzio ugari dituztenez, beste atal batzuetan ere erabil daitezke, adibidez gorputzean, gidariburu honetan deskribatzen den bezala. Gailu hau probatzean, SAR altuena 0,759 W/kg izan zen. Probak nazioarteko araudien arabera egin dira. SAR-en informazioaren barnean sartzen dira Motorolaren proben protokoloa, balorazio-prozedura eta produktu honetarako ziurgabetasun-marjina neurketan. Mugikorren transmisioeko potentzia maximoa erabilita neurtzen da SAR balioa; beraz, mugikor hau baldintza arruntetan erabiltzen denean, lehen aipatutakoa baino SAR balio baxuagoa du. Hori gertatzen da mugikorrek potentzia-mailak automatikoki aldatzen dituelako sarera konektatzeko balio minimoa erabiltzeko.

Mugikorren artean SAR mailan desberdintasunak egon daitezkeen arren eta baldintza desberdinetan erabiltzen diren arren, guztiak betetzen dituzte esposizio segurua ziurtatzeko gobernuen eskakizunak. Kontuan izan modelo honetan egin daitezkeen hobekuntzek aldatu egin dezaketela geroko produktuen SAR balioa. Hala ere, produktu guztiak araudi horien arabera egiten dira. Munduko Osasun Erakundeak berretsi du egindako azterketa zientifikoak ikusita ez dela beharrezkoa arreta berezirik hartzea gailu mugikorrek erabiltzeko. Horrez gain, adierazten dute esposizio-maila murrizteko deien iraupena murrizt dezakezula edo "esku libreko kita" erabil dezakezula, telefono mugikorra burutik eta gorputzetik urrun edukitzeko. Informazio gehiago eskuratu dezakezu Munduko Osasun Erakundearen webguneetan, edo hemen:

www.who.int/es o en Motorola, Inc.

www.motorola.com/jrthealth (ingelesez).

Europako Batasuneko jarraibideekiko adostasun-deklarazioa



ADOSTASUN-DEKLARAZIOA
1890/2000 Araudia,
2010eko ekainaren 28a

Erreferentzia:	LVJ02110J35834503D I
Enpresa ziurtatzailea:	Motorola, Inc. (Mobile Devices Business) 600 North US Highway 45 Libertyville, Illinois 60048-1286, USA

Produktu hau ziurtatzen du:

Modeloaren izena:	DVT6-33411A11
Modeloaren izena merkatuan:	EX300
Deskribapena:	Hauk dituen telefono mugikor digitala: WCDMA900 (FDDVII), 3. mota; GSM 900, 4. mota; GSM 1000, 1. mota; GSM 1900, 1. mota; Bluetooth konexioa, 1. mota (20 EDR); eta GPSa.
Oharra:	ID 2845

Motorola Inc.-ek adierazten du, bere erantzukizunpean, arestian aipatutako produktuek betetzen dituztela **irratiko eta telekomunikazioetako Europako 999/5/EE Direktibaren betebeharragusiak**, 10. artikuluan erreferentzia egiten zaion ebaluazio-prozedura (horri buruzko informazio gehiago ematen da 199/5/EE zuzentarauaren III. eranskinean) jakinarazitako erakunde honen parte-hartzearekin gauzatu da: CETECOMICT Services GmbH. H ortaz, **CE 0682** bereizgarria produktuan ageri da.

IMEI: 358345030052325

CE 0682

Type: DVT6-33411A11

Produktuaren onarpen-zenbakia

Aurreko taulan Produktuaren Onarpen Zenbakiaren ohiko adibide bat ikus daiteke. Produktu honek betetzen ditu arau-dokumentu edo -estandar hauek, batez ere, 1999/5/EE direktibaren 3. artikuluko baldintza espezifikokoak.

3.1 a artikulua

EN 50360.2001
EN62209-l: 2006
EN 60950-1:2006+-A11 2009


3.1 b artikulua

EN301 489-1 v1.8.1
EN301 499-3 v1.4.1
EN301 499-7 v1.3.1
EN301 469-17 v2.1.1
EN301 489-24 v1.7.7
EN300 440-2 v1.2.1

3.2 artikulua

EN 300 328 v1.7.1
EN 301 511 v9.0.2
EN 301 908-1 v3.2
EN 301 908-2 v3.2
EN300 440-2 v1.2.1

Arestian deskribatutako produktuaren eraikuntza teknikoko fitxategia (TCF, Technical Construction File), dokumentu hau berresten duena, ziurtatze-enpresa horrek berak du.

Izena:	Sinadura:	Kargua:	Emisio- data:	Azken berrikuspena:
Mike Roper		Ziurtapen eta onarpenen zuzendaria	2010eko ekainaren 28a	E/E

Motorola Inc.-en idatzizko onarpenik gabe, dokumentu honek ez du baliorik izango homologazio- edo inportazio-froga gisa.

Softwarearen egile-eskubideei buruzko ohararazpen legala

Motorolaren produktuek Motorolaren edo hirugarrenen softwarea eduki dezakete, erdieroalezko memorietan edo bestelakoetan grabatuta, egilearen eskubideek babestuta. Estatu Batuetako eta beste herrialde batzuetako legeek eskubide berezi batzuk eman dizkiete Motorolari eta beste software-fabrikatzaileei egile-eskubideek babestutako softwareari dagokionez; besteak beste, software hori banatzeko edo erreproduzitzeko eskubideak. Beraz, Motorolaren produktuetako egile-eskubideek babestutako softwarea ezin izango da aldatu, banatu, erreproduzitu edo alderantziko ingeniartzan erabili, legeak ezarritakoari jarraiki. Gainera, Motorolaren produktuak erostea ez da hartu behar lizentziatzat –zuzenekoa edo implikaziokoa, alegaziokoa edo bestelakoa–, egile-eskubidetzat edo Motorolaren edo beste software-fabrikatzaileen patente edo patenteen aplikaziotzat. Erabilera arrunterako lizentzia bakarrik ematen du, ez erabileraklusiboa eta eskubiderik gabea, produktua saltzetik inplizituki sortua.

Edukiaren egile-eskubideak

Egile-eskubideen mende dagoen materiala baimenik gabe kopiatuz gero, Estatu Batuetako eta beste herrialde batzuetako egile-eskubideei buruzko legeetako xedapenak hausten dira. Gailu hau bakarrik erabil dezakezu egile-eskubideen mende ez dagoen materiala kopiatzeko, hau da, egile-eskubideak zureak diren materialen kasuan edo legez kopia ditzakezun materialen kasuan. Materiala kopiatzeko eskubideei buruzko zalantzarik baduzu, jarri harremanetan zure abokatuarekin.

Informazio orokorra eta segurtasunari buruzkoa

Atal honek informazio garrantzitsua du zure telefono mugikorra modu seguruan eta eraginkorrean erabiltzeko buruz. Irakurri informazio hau zure telefono mugikorra erabili aurretik. Irati-maiztasuneko (IM) energiarekiko esposizioa

Zure mugikorrak transmisore eta hartzaile bana ditu. Konektatuta dagoanean ("ON"), IM energia jasotzen eta transmititzen du. Telefono mugikorraren bidez komunikatzen zarenean, zure deliaz arduratzen den sistemak zure telefonoak transmititzen duen potentzia-maila kontrolatzen du. Telefono mugikorra bereziki diseinatuta dago gizakiak IM energiaren eraginpean egoteari buruz herrialde bakoitzean dauden legeak betetzeko.

Funtzionamenduari buruzko neurriak

Zure telefono mugikorrak errendimendu egokia izan dezan eta gizakiak IM energiaren eraginpean egoteari buruzko arauak betetzen direla bermatzeko, jarraitu beti jarraibide eta neurri hauei.

Produktuaren funtzionamendua

Deliaz egitean edo jasotzean, erabili telefonoa telefono finkoak erabiltzen dituzun bezalaxe. Mugikorra soinean badaramazu, jar ezazu beti Motorolak baimendutako klip, euskarri, pintza, zorro edo amesen batean. Motorolak banatutako edo baimendutako garraio-osagarri bat erabiltzen ez baduzu, jarri mugikorra eta antena zure gorputzetik 25 cm-ra, transmititzen ari den bitartean. Motorolak eman edo homologatu gabeko osagarriak erabiltzeak IM energiaren eraginaren arautan ezarritako mugen gainetik egotea eragin dezake. Motorolak emandako eta homologatutako osagarri-zerrenda bat duzu www.motorola.com web orrian.

IM energia: interferentziak eta bateragarritasuna

Ia gailu elektronikoko guztiak izan ditzakete interferentziak kanpo-iturrietako IM energiarekin, ongi babestuta ez badaude eta IM energiarekiko bateragarritasuna eskaintzeko diseinatuta edo konfiguratuta ez badaude. Kasu batzuetan, zure telefono mugikorrak interferentziak sor ditzake beste gailu batzuekin.

Interferentzia-arazoak saihesteko, jarraitu urrats hauei

Itzali telefonoa hala adierazten duten oharrak dauden lekuetan.

Hegazkinetan, itzali gailu mugikorra tripulazioak hala adierazten duen guztietan. Gailuak hegaldietarako moduren bat edo antzeko ezaugarriren bat badu, kontsultatu tripulazioari erabil dezakezun.

Gailu medikoak

Gailu medikoren bat ezarrita baduzu, adibidez, taupada-markagailu bat edo desfibriladore bat, galdetu medikuari mugikorra erabiltzen hasi aurretik.

Gailu medikoak ezarrita dituzten pertsonak ohar hauek eduki behar dituzte kontuan:

- Telefonoa PIZTUTA dagoenean, gailu medikuetatik 20 zentimetrora baino gehiagora eduki behar dute BETI.
- INOIZ EZ dute telefonoa bular pareko poltsikoan eraman behar.
- Mugikorra erabili behar dute gailu medikoa dagoen aldearen aurkako aldean, interferentziak ahalik eta gehien gutxitzeko.
- Telefonoa berehala itzali behar dute, arrazoiren batengatik interferentziak sortzen ari dela susmatzen badute.

Irakurri eta kontuan hartu gailu medikoaren fabrikatzailearen jarraibideak. Mugikorra gailu medikoarekin batera erabiltzeko moduari buruzko galderaren bat baduzu, jarri harremanetan mediku-zerbitzuen zure hornitzailearekin.

Gidatzean hartu beharreko neurriak

Gidatzen ari zarela gailu mugikor bat erabiltzea arreta galarazi diezazuke. Arretaz gidatu ezin baduzu, amaitu deia. Gidatzen hasi aurretik sartu zure helburuari eta bideari buruzko informazioa. Ez sartu daturik eta ez bidali testu-mezurik gidatzen ari zarela, eta begiratu errepidera. Entzun azalpenak pausoz pauso (baldin badituzu). Bestalde, osagarri edo gailu mugikor bat erabiltzea debekatuta edo mugatuta egon daiteke eremu batzuetan. Egin kasu beti horrelako produktuen erabilera arautzen duten lege eta arauak. Gidatzen ari zaren bitartean mugikorra arduraz erabiltzeari buruzko jarraibideak dituzu www.motorola.com/callsmart gunean (ingelesez bakarrik).







Erabilerari buruzko oharra

Gune publikoetan, egin kasu gailu mugikorrek erabiltzeari buruzko seinaleei. Lehergaiak egon daitezkeen inguruak

Lehergaiak egon daitezkeen inguruak seinalezatuak egon ohi dira, baina ez beti, eta barnean hartzen dituzte erregaiak hartzeko guneak –adibidez, itsasontzien bizkarraren azpiko guneak–, erregaiak edo produktu kimikoak biltegitartzeko edo garraiatzeko instalazioak eta airean substantzia kimikoak edo partikulak –hala nola erregai-hautsa edo metal-hautsak– dauden eremuak. Deskonektatu mugikorra lehergaiak egon daitezkeen inguruetara sartu aurretik. Ez utzi, instalatu edo kargatu bateriarik inguru horietan. Inguru horietan txinpartak sortzen badira, leherketa bat edo sute bat gerta daiteke.

Irudi-testuak

Bateriak, kargagailuak edo telefono mugikorrek ikurrak izan ditzakete. Hau da ikurren esanahia:

Sinboloa	Definizioa
	Segurtasun-informazio garrantzitsua adierazten du.
	Telefono mugikorra edo bateria ez dira sutara bota behar.
	Beharbada, bateria edo telefono mugikorra tokiko legeen arabera birziklatu behar dira. Kontsultatu tokiko agintari eskudunekin informazio gehiago lortzeko.
	Bateria edo telefono mugikorra ez dira zakarretara bota behar.
	Bateria, kargagailua eta telefono mugikorra ez daitezela busti.
	Entzumenari kalte egin diezaiokie musika edo bestelako soinuak entzungailuekin oso ozen entzuteak.

Bateriak eta kargagailuak

Kontuz: egokiak ez diren bateriak erabiltzeak suteak, leherketak, ihesak edo bestelako arriskuak eragin ditzake. Informazio gehiago eskuratzeko, ikus "Bateria erabiltzea eta haren segurtasuna" atala. Elektrizitate-egokigailua da ekipoa deskonektatzeko gailua. Korrante-hartuneak ekipotik gertu egon behar du, eta erraz irteteko toki batean.

Ez utzi telefonoa eta haren osagarriak haur txikien eskueran.

Produktu hauek ez dira jostailuak, eta arriskutsuak izan daitezke haur txikiarentzat. Adibidez:

- Pieza txikiak edo pieza desmontagarriekin haurrak ito egin daitezke.
- Gaizki erabiliz gero, soinu altuak sor daitezke, eta entzumen-kalteak sor ditzakete.
- Bateriak gaizki erabiltzeak gehiagor berotu ditzake, eta erre egin daitezke.

Beirazko osagaiak

Baliteke gailu mugikorrek osagai batzuk beiraz eginda egotea. Beira hori hautsi egin daiteke produktua gainazal gogor batera erortzen bada edo kolpe handia hartzen bada. Beira apurtzen bada, ez ukitu eta ez saiatu kentzen. Ez erabili gailu mugikorra zerbitzu tekniko gaitu batean beira aldatu arte.

Epilepsia-krisiak edo zorabioak

Pertsona batzuek epilepsia krisiak edo zorabioak izan ditzakete keinuka dauden argien eraginpean, hala nola bideo-jokoetan aritzean. Litekeena da epilepsia krisi edo zorabio horiek sekula horrelakorik gertatu ez zaien pertsoneri ere gertatzea. Epilepsia-krisirik edo zorabiorik izan baduzu edo horrelako familia-aurrekaririk baduzu, galdetu medikuari mugikorrarekin bideo-jokoetan jolasean aritu edo mugikorraren argi keinukarien funtzioa erabili baino lehen (zure mugikorrak funtzio hori izanez gero).

Sintoma hauetakoren izanez gero, utzi erabiltzeari eta joan medikuarengana: konbultsioak, begien edo muskuluen mugimendu konbultsiboak, konortea galtzea, oharkabeko mugimenduak edo desorientazioa. Ona da noizean behin atsedean bat egitea, gelako argiak piztuta uztea, ordu bakoitzeko 15 minutuko atsedean bat egitea edo erabiltzeari uztea, nekatuta bazaude.

Bolumen handian erabiltzeari buruzko neurriak

Oharra: edozein motatako soinu altuak denbora luzez entzuteak kalte egin diezaioke zure entzumen-gaitasunari. Soinu-maila zentzu eta handiagoa izan, orduan eta denbora gutxiagoan eragingo dio zure entzumen-gaitasunari. Zure entzumen-gaitasuna babesteko:

- Mugatu entzungailuak bolumen altuan erabiltzeko denbora.
- Saiatu bolumena ez igotzen ingurune zaratsuak blokeatzeko.
- Zure ondoan hitz egiten ari diren pertsoneri entzuten ez badiezu, jaitsi bolumena.

Entzumen-eragozpenak badituzu, presio- eta taponatze-sentsazioa, burrunba edo gortasuna bame, gailuarekin entzungailuak erabiltzeari utzi behar zaio, eta entzumena azterketa bat egin. Entzumenari buruzko informazio gehiago eskuratzeko, ikus gure webgunea: direct.motorola.com/hellomoto/nss/AcousticSafety.asp (ingelesez bakarrik).

Errepikatzen diren mugimenduak

Errepikatzen diren ekintzak egitean, hala nola tekla sakatzea edo testu-karakterek sartzea hatzez, batzuetan, eskuetako, besoetako, sorbaldako, lepoko edo gorpuzteko beste ataletako mina senti daiteke. Gailua erabiltzen ari zarela edo erabili ondoren ondoeza desagertzen ez bada, utzi erabiltzeari eta joan medikuarengana. (2009ko azaroko 1)



FCCren oharra erabiltzaileentzat

Adierazpen hau FCCren (Komunikazio Batzorde Federala) onspena duten produktuguztiei buruzkoa da (Comisión Federal de Comunicaciones). FCCren logoa eta/edo FCCren identifikazioa (FCC-ID: xxxxxx) dute aplikatu beharreko produktuek etiketan.

Motorolak ez du onartu erabiltzaileak gailu honetan egin dezakeen aldaketarik. Edozein aldaketak bertan behera utz dezake ekipoa erabiltzeko erabiltzaileari emandako baimena. Ikus 47 CFR, 15:21 SEK.

Gailu honek FCCren araudiko 15. atalean ezarritakoa betetzen du. Erabili ahal izateko bi baldintza hauek bete behar ditu: (1) gailu honek ez du interferentzia kaltegarriarik sortu behar eta (2) gailu honek jasotzen duen edozein interferentzia onartu behar du, nahi ez den funtzionamendua eragin dezaketena bame. Ikus 47 CFR, 15.1913 sek. Ekipoa honek proba bat gainditu du eta ikusi da B motako gailu digitaletarako ezarritako mugak betetzen dituela, FCCren Araudiko 15. atalean ezarritakoaren arabera. Muga horien helburua da arrazoizko babesa ematea etxeko instalazioetan kalteak eragin ditzaketen interferentzien aurka. Ekipoa honek irati-maiztasunaren energia sor, erabil eta igor dezake, eta jarraibideen arabera instalatzeko eta erabiltzen ez bada, interferentzia kaltegarriak sor ditzake irati bidezko komunikazioetan. Hala ere, ezin da bermatu instalazio jakin batean interferentziarik sortuko ez denik. Ekipoa honek irratia edo telebista jasotzeko garaian interferentzia kaltegarriak sortuko balitu (ekipoa itzali eta berrituz piztuta ikus daiteke hori), erabiltzaileari aholkatzen zaio interferentzia hori zuzen dezala aukera hauetakoren baten bidez:

- Antena hartzailearen orientazioa edo kokapena aldatu.
- Hartzailearen eta ekipoa arteko tartea handitu.
- Ekipoa eta hartzailea korrante-hartuneen zirkuitu desberdinerara konektatu.
- Irrati/telebista gaietan aditua den banatzaileari edo teknikariari laguntza eskatu.

Erabilera eta mantentze-lanak

Motorola telefonoa babesteko, hauetatik urrun eduki:



Mota guztietako likidoak

Ez utzi telefonoa uraren, euriaren, kanpoko hezetasunaren, izerdiairen edo bestelako hezetasun-moten eraginpean. Zure telefonoa busti egiten bada, ez erabili labe edo lehorgailurik hura lehenago lehertzeko; izan ere, telefonoa hondatu egin daiteke.



Bero edo hotz handia

Saihestu 0 °C-tik beherako edo 45 °C-tik gorako tenperaturak.



Mikrouhinak

Ez saiatu telefonoa mikrouhin-labe batean lehortzen.



Hautsa eta zikinkeria

Ez utzi telefonoa hautsaren, zikinkeria, harearen, janariaren edo desegokiak diren beste hainbat materialen mende.



Garbitzeko produktuak

Telefonoa garbitzeko, erabili zapi leun eta lehorrak. Ez erabili alkoholik edo bestelako garbigarririk.



Kolpeak eta bibrazioak

Telefonoa ez dadila eror.

Munduko Osasun Erakundearen informazioa (MOE)

Gaur egungo ikerketa zientifikoen arabera, ez da aparteko konturik izan behar telefono mugikorrek erabiltzean. Kezkatuta bazaude, IMaren eraginpean zuk eta/ edo zure seme-alabek denbora gutxiago pasatzera erabaki dezakezu, —deien iraupena murriztuz edo esku libreko gailuak erabiliz— telefono mugikorra burutik eta gorputzetik urrun izateko.

Iturria: OME. 193. informazio-oharra

Informazio osagarria: <http://www.who.int/peh-emf>

Birziklatuz ingurumena babestea

Ikur hau Motorolaren produktu batean ikusten baduzu, ez bota etxeko zakarretara.

Telefono mugikorrek eta osagarriak birziklatzea

Ez bota telefono mugikorra eta osagarri elektrikoak —adibidez, kargagailuak, entzungailuak edo bateriak— etxeko zakarretara. Telefono mugikorra edo bateria ez dira sutara bota behar. Udalek eta erkidegoek aplikatutako estatuko birziklatze- eta bilketa-planaren arabera bota behar dira artikulu horiek. Nahiago baduzu, eraman Motorolak onartutako edozein zerbitzu-zentrotara behar ez dituzun gailu mugikorrek eta osagarriak elektrikoak.



Motorolak onartutako estatuko birziklatze-planei eta Motorolaren birziklatze-jarduerei buruzko informazio gehiago duzu web gune honetan: www.motorola.com/recycling Bilgarria eta telefono mugikorren erabiltzaile-eskuliburua Estatuko birziklatze- eta bilketa-baldintzen arabera bota behar dituzu bilgarria eta eskuliburuak. Póngase en contacto con las autoridades regionales para obtener más información.

Pribatutasuna eta datuen babesa

Motorolak badaki pribatutasuna eta datuen segurtasuna garrantzitsuak direla. Mugikorrek funtzio batzuek pribatutasunari eta datuen segurtasunari eragin diezaioketenez, segi aholku hauen zure informazioa hobeto babesteko:

- **Sarbide-kontrola:** eduki gailua zurekin, eta ez utzi besteek zure kontrolik gabe har dezaketean toki batean. Blokeatu gailuko teklatura, funtzio hori badago.
- **Eduki softwarea eguneratuta:** Motorolak edo softwareen edo aplikazioen haren hornitzaileak mugikorrerako adabakiren bat edo doikuntzaren bat salgai jartzen badu eta horrek mugikorren segurtasuna areagotzen badu, k instalatzea ezazu lehenbailehen.
- **Informazio pertsonal segurua:** mugikorrek hainbat lekutan gorde dezake informazio pertsonala, baita SIM txartelean, memoria-txartelean eta telefonoaren memorian ere. Egiaztatu informazio pertsonal guztia ezabatu duzula gailua birziklatu, itzuli edo bota aurretik. Datu pertsonalen segurtasun-kopia ere egin dezakezu, gailu berrira transferitzeko.

Oharra: segurtasun-kopiak egiteari edo gailu mugikorren datuak ezabatzeari buruzko informazio gehiago eskuratzeko, jo hona: www.motorola.com/support.

- **Lineako kontuak:** gailu mugikor batzuek Motorolaren lineako kontu bat ematen dute (adibidez, MOTOBLUR). Zoaz zure kontura kontua kudeatzeari eta segurtasun-funtzioak erabiltzeari buruzko informazioa eskuratzeko, adibidez, urrutitik ezabatzea eta gailuaren kokapena (eskuragarri badago).
- **Kokapenean oinarrituta informazioa:** kokapenean oinarritutako informazioan sartzen da gailu mugikorren kokapena zehazteko informazioa ere. Haririk gabeko sare bati lotutako telefono mugikorrek kokapenean oinarritutako informazioa transmititzen dute. GPS edo AGPS teknologiak aktibatua dituzten gailuek ere kokapenean oinarritutako informazioa transmititzen dute. Gainera, kokapenean oinarritutako informazioa eskatzen duten aplikazioak erabiltzen badira (adibidez, gidatzeko jarraibideak), aplikazio horiek kokapenean oinarritutako informazioa transmititzen dute. Kokapenean oinarritutako informazioa hirugarrenekin partekatu daiteke, baita haririk gabeko zerbitzuen zure hornitzaileekin, aplikazioen hornitzaileekin, Motorolagabeko eta hirugarrenen beste zerbitzu batzuekin ere.

- **Zure gailuak eman dezakeen beste informazio-mota bat:** zure gailuak probatarako informazioa eta beste zenbait diagnostiko eman ditzake (baita kokapenean oinarritutako informazioa ere), eta beste zenbait motatako informazioa Motorolari edo hirugarrenen beste zerbitzari batzuei. Motorolak eskaintzen dituen produktuak eta zerbitzuak hobetzen laguntzeko balio du informazio honek.

Gailuaren erabilerak zure pribatasunean eta datuen segurtasunean duen eraginari buruz gehiago jakin nahi baduzu, jarri harremanetan Motorolarekin, privacy@motorola.com helbidera idatzita, edo zure zerbitzu-hornitzailearekin.

Gidatzen ari zarela arduraz erabiltzea

Segurtasunez gidatu eta hitz egin inteligentziaz.

Irakurri gidatzen ari zarela mugikorak eta horien osagarriak erabiltzeari buruzko **hemialedeko legeak eta arauak**. Egin kasu beti. Baliteke gailuak erabiltzea debekaturata edo mugatuta egotea zenbait eremutan, adibidez, esku libreko funtzioa soilik erabiltzeko. Ikus www.motorola.com/callsmart gunea (ingelesez bakarrik) informazio gehiago izateko.

Gailu mugikorrek aukera ematen dizu edozein leku eta unetan hitz egiteko eta datuak partekatzeko, baldin eta haririk gabeko zerbitzua eskuragarri badago eta segurtasun-baldintzak egokiak badira. Autoa gidatzen ari zarenean, gidatzea da lehenengo ardura. Gidatzen ari zaren bitartean telefono mugikorra erabiltzea erabakitzen baduzu, gogoan izan aholku hauek:

- **Ezagutu Motorola mugikorra eta haren funtzioak; adibidez, markaketa bizkorreko funtzioa eta berriro deitzeko funtzioa.** Erabiltzari badaude, funtzio horiek deitzen lagunduko dizute, errepidera arretaz begira segitzen duzun bitartean.
- **Erabili esku libreko gailu bat, baldin baduzu.** Mugikorra askoz erosoago erabil dezakezu merkatuan dauden Motorolaren esku libreko osagarri ugarietako batekin.
- **Jarri telefono mugikorra erraz hartzeko moduan.** Errepidera begiratzen duzun bitartean telefono mugikorra hartzeko aukera izan behar duzu. Egokia ez den une batean dei bat jasotzen baduzu, ahal baduzu, utzi ahots-postontziari erantzuten.
- **Jakinarazi solaskideari gidatzen ari zarela, eta, behar izanez gero, amaitu deia zirkulazio handia edo eguraldi oso txarra badago.** Euria, elur bustia, elurra, izotza eta zirkulazio handia arriskutsuak izan daitezke.
- **Ez hartu oharririk eta ez begiratu zenbakirik gidatzen ari zaren bitartean.** "Egin beharkekoen" zerrrenda osatzeak edo agenda begiratzekak arreta galaraz diezazkete, eta seguru gidatzea eragotzi.
- **Deitu zentzuzko kondizioetan eta aztertu zirkulazioaren egoera, eta, ahal bada, deitu autoa geldirik dagoenean edo martxan jarri aurretik.** Gidatzen ari zarela deitu behar baduzu, markatu zenbaki batzuk bakarrik, begiratu errepidera eta ispiluetara, eta segi markatzen.



- **Ez eduki arreta galaraz diezazkete elkarizetako estresagarriak edo sentikomik.** Jakinarazi solaskideari gidatzen ari zarela, eta amaitu arreta errepidetik desbidera dezaketen elkarrizketak.
- **Erabili gailu mugikorra laguntza-deiak egiteko.** Sute, auto-istripu edo larrialdi emakorren bat gertatuz gero, markatu 12 zenbakia edo beste larrialdi-zenbaki bat (telefonía mugikorrek zerbitzu hori dagoen lekuan).
- **Erabili mugikorra larrialdi-egoeran dauden beste pertsoneri laguntzeko.** Auto-istripu edo delituren bat edo beste larrialdi-egoeraren bat ikusi baduzu eta norbaiten bizia arriskuan badago, deitu 112 zenbakira edo beste larrialdi-zenbaki batera, (telefonía mugikorrek zerbitzu hori dagoen leku batean) zure kasuan beste norbaitek egitea nahiko zenukeen bezala.*
- **Deitu errepideko laguntza-zerbitzuetara edo haririk gabeko laguntza-zenbaki bereziren batera, behar izanez gero.** Arriskurik eragiten ez duen eta matxurata dagoen ibilgailu bat, hondaturako trafiko-seinale bat, zauriturik eragin ez duen garrantzi txikiko istripuren bat edo lapurtutako ibilgailu bat ikusi baduzu, deitu errepideko laguntza-zerbitzuetara edo haririk gabeko beste zenbaki bereziren batera (telefonía mugikorrek zerbitzu hori dagoen leku batean) www.hellomoto.com.

MERKATARITZA-BERMEA

Motorola Espala SAK (helbidea: C/Martínez Villergas 52, Bloque C; IFC: A78109592) bermatzen du Motorolaren Komunikatzaile Personalak eta Motorolaren osagarri originalak (aurerantzean, "Produktuak") fabrikatzeako unean indarrean zeuden aplikatu beharreko Motorolaren zehaztapenekin bat datozela eta 25 hilabeteko berme esrtandarra dutela Produktua(k) erosi den/ziren egunetik hasita (aurerantzean, "Bermearen epea"). Motorola ez da Motorolak zuzenean egin ez duen Produktuarekin lotutako deklarazioen eta saltzaleari dagozkien berme-betebeharren erantzule izango. Bermearen Epean, Motorolak, kargu gehigarri gabe, Berme honekin Bat ez datorren produktuak konpondu eta ordeztingo du; bestela, jatorrizko erroleak Produktuagatik ordaindu duen erosketa-prezioen zenbatekoa itzuliko dio. Bermearen Epea amaitzen iraungiko da berme hau ere. Berme honek ez dio eragiten kontsumitzaile gisa izan daitekeen legez ezarritako inolako eskubideri. Hau da Motorolaren Komunikatzaile personalerako eta horren osagarrietarako berme osoa eta bakarra (1/2007 Errege Dekretu legegileren ezarritakoa salbu: azaroaren 16ko dekretua, kontsumitzaile eta erabiltzaileen defentsarako lege orokorra eta beste lege osagarri batzuen testu bategina onesten duena), eta bestelako Bermeak edo zehaztapenak eta baldintzak –argiak zein isilekoak– ordezten ditu.

Motorkal kanpion uzten ditu gainerako bermeak eta zehaztapen eta baldintzak argiak edo isilekoak –adibidez, egokitasuna eta kalitate ona–, produktuak kontsumitzaile-baldintzetan erosi ez bada. Motorola ez da inoiz izango erosketa-prezioa gainditzen duten kalteen edo informazio-galeraren erantzule, ezta Produktua erabiltzeagatik edo hura erabiltzeko aukerarik ez izateagatik sortutako itzidantzia-kalteen*, kalte bereziren edo zeharkakoen erantzule ere, legez kanpion utzteko aukera ematen duen neurrian.

NOLA LORTU ZERBITZU BERMEDUNA?

Kasu gehienetan, Motorolaren Komunikatzaile Pertsonala eta osagarriak saldu eta jodedo instalatu dizkizun Motorolaren banatzaile baimendunak egingo die aurre errekamazioei Bermepean eta jodedo hark emango dizu zerbitzua Bermepean. Gainera, berme-zerbitzua izateko informazio gehiago behar baduzu, zure zerbitzu-homitzailearen bezeroentzako arreta-zerbitzuekin edo Motorolaren Dei-zentroarekin (+34902.100.077) jar zaitezke harremanetan. Mugikorra erosi den herrialdean legez behartuta badago konponketa-zerbitzua erosketaren lehen urtearen ondoren luzatzea, Motorolaren zerbitzu teknikoek edo mugikorra erosi den herrialdean Motorolak baimendutako establezimendu batek emango dute zerbitzu bermeduna, Bermeari buruz informazio-dokumentu honetan hitzartutakoaren arabera. Dena den, arren, kontuan izan mugikorra erosi den herrialdeko legediak esaten badu mugikorra erosi eta urtebete pasatu ondoren konponketa-zerbitzua produktuaren saltzailearen edo inportatzailearen ardurara dela (eta ez fabrikatzailearena), saltzailearengana jo beharko duzula, baldin eta Motorola establezimenduak produktua zuzenean Motorolaren bidez eskuratu badu saldu den herrialdean edo erosi ondorengo bigarren urtean Motorolari konponketa-zerbitzu osagarria ematea eskatzen ez dion herrialde batean.

ESKAERA

Zerbitzua bermepean eskatzeko, Komunikatzaile Pertsonala eta jodedo osagarriak eraman behar dituzu Motorolaren Banatzaile Ofizialera edo Motorolaren Zerbitzu Tekniko Baimendu batera. Zerbitzua Bermepean izateko eskubidea izateko, zure erosketa-faktura edo ziurtagiri baliokidea aurkeztu behar duzu, non erosketa-datak agertu behar baitu. Komunikagailuak argi erakutsi behar du jatorrizko serie elektronikoko bateragarriaren zenbakia (IMEI) eta serie mekanikoaren zenbakia (MSN), erreferentzia-zenbaki gisa. Informazio hori Produktuarekin batera erusten da. Kasu batzuetan, Zerbitzu Tekniko Baimenduak Produktuen mantentze-lanei buruzko informazio osagarria eskatu ahal izango dizute. Beraz, garrantzitsua da aurreko konponketei buruzko informazioa gordetzea eta horiek eskura izatea, mantentze-lanei buruzko edozein galdera egiten dituzenerako.

BALDINTZAK

Berme hau ezingo da aplikatu Produktuan agertzen diren modeloa edo serie-zenbakiak ezabatuta, kenduta, aldatuta badaude, irakurtzeko moduan ez badaude edo Komunikagailuaren etiketa nolabait aldatuta badago. Motorolak berretzat gordetzen du Berme barmuan dagoen doako zerbitzu bat ez emateko eskubidea, baldin eta eskatutako dokumentazioa ematen ez bada, informazioa nahikoa ez bada, irakurri ezin bada edo fabrikako erregistroekin bat ez badator.

1. Barne hartzen ditu, mugarik gabe, erabilera-galera, denbora-galera, informazio-galera, eragozpenak, galera komertziala, sortutako kalteak, eskuratu ez diren irabaziak edo aurrezki-galera.

Motorola ez da erantzule izango, inola ere, Motorolak eman ez duen eta Produktuetan sartuta dagoen edo haiekin lotuta dagoen ekipu laguntzaileek sortutako arazoena edo kalteena, edo Motorola ekipoa ekipu laguntzailearen batekin duen funtzionamenduarena, kontuan hartu gabe Berme honetako ekipoa. Produktua Motorolak eman ez duen ekipu laguntzaile edo periferikoren batekin erabiltzen denean, ez da Produktua/periferikoa konbinazioaren funtzionamendua bermatzen, eta ez dio Bermearen errekamazioei aurre egingo Produktua konbinazio horrekin erabiltzen bada eta Motorolak Produktuak akatsik ez duela zehazten ez badu. Motorola ez da Motorolarenak diren edo Motorolarenak ez diren ekipoei jasandako kalteen erantzule egingo, kalteak Komunikagailu Pertsonala, osagarriak, software-aplikazioak eta periferikoak (alegia, mugarik gabe, bateriak, kargagailuak, egokigailuak eta elikatze-iturriak) erabiltzeagatik sortu badira, eta osagarri, software-aplikazio eta periferiko horiek Motorolak fabrikatu eta eman ez baditu.

LEGE-BERMEAREN ESKUBIDE OSAGARRIAK

Kontsumitzaileari eta erabiltzaileari lege-bermearen eskubide osagarri hauek ematen zaizkio, bermearen titular gisa:

- 25 hilabeteko epea.
- Motorolak bere gain hartuko du bermatzaile-papera, saltzaile-paperaz gain.

ZER EZ DA SARTZEN BERME MUGATUAN?

Berme honek ez du baliorik, baldin eta akatsak kalteek, erabilera desegokiek, aldatetek, arduragabekeriak edo hutsegiteak eragin badituzte, eta, aldateten edo konponketen kasuan, haiek baimenik gabeko pertsonak egin badituzte. Adibide gisa, Berme honi dagokionez, Berme honetan ez dira sartzen akats edo kalte hauek:

- 1 Produktua normal edo ohi den bezala erabili ez izanagatik sortutako akatsak edo kalteak.
- 2 Erabilera okerrak, iturri bateraezinekin konektatzeak, istripuek edo axolagabekeriak sortutako akatsak edo kalteak.
- 3 Motorolatik kanpoko hirugarrenek egindako egiaztapen edo konponketek, saldu osteko sare baimenduak, erabilerak, baimendu gabeko software-aplikazioen instalazioak edo edozein motatako aldatetek eragindako akatsak edo kalteak.
- 4 Antenan haustea edo haiei kalteak eragitea, materialek edo akaberako ataktek zuzenean eragindakoak izan ezik.
- 5 Motorolak desmuntatu edo konpondu ez dituen produktuak, errendimenduan kalteak eragiten badituzte edo Bermepeko errekamazioak egiaztatzeko ikuskapen egokia egitea edo probak egitea eragozten badute.

6 Operadorearen telefonia mugikorraren sistemaren irismena, estaldura, erabilgarritasuna eta zerbitzu- edo funtzionamendu-mailak direla-eta sortutako akatsak edo kalteak.

7 Likidoek edo elikagaiek eragindako akatsak edo kalteak.

8 Bezeroak erabileran urratutako edo kalteak eragindako plastikozko gainazalak eta gainerako kanpoko piezak.

9 Matxurarik gabeko mantentze-lan eta konponketa kosmetikoak.

Oharra: batera elementu galkorra da. Izaeragatik beragatik, bateriaren errendimenduak txikitu egiten da erabilerarekin, baina horrek ez du esan nahi akastuna denik.

Motorolaren berriz kargatzeko baterien Bermea bertan behera geratuko da baldin eta (i) bateriak kargatzeko, Motorola homologatuta dituen kargagailuak –bateria kargatzeko zehaztutakoak– ez bezalakoak erabiltzen badira, (ii) bateriaren zigituren bat haurtsita badago edo aldaketa-arrastoak baditu, eta (iii) bateria ekipo edo zerbitzuren batean erabili bada edo horiek ez badira batera horri dagozkion Komunikagailu Pertsonalenak.

GRABATUTAKO DATUAK

Mesedez, idatzi Produktuan gordetako datu guztiak (adibidez, izenak, helbideak, telefono-zenbakiak, erabiltzaile- eta sarbide-kodeak, oharrak eta abar) Produktua konponketa-zerbitzuan utzi aurretik; izan ere, datu horiek ezaba edo honda daitezke konpontze-prozesuan.

Mesedez, Produktuan materialen bat deskargatu baduzu (adibidez, dei-tonuak, doinuak, pantailako marrazkiak, pantaila-babesak, jokoak eta abar), horiek ezabatu egin daitezke konpontze- edo probatze-prozesuan. Motorola ez da kalte horien arduradun. Konpontze- edo probatze-prozesuak ez die eragingo Motorolak zure produktuan instalatutako materialei.

SARTZEN EZ DIREN KONPONKETAK

Bermearen epetik kanpo Produktua konpontzeko eskatzen badiozu Motorolari edo akatsa Bermearen barruan ez badago, Motorolak konponketa horiek egin ditzake edo hirugarren baimendu bati eska dakiok hori egiteko. Konponketa horiek zuk zeuk ordaindu beharko dituzu.

Egile-eskubideak

Zenbait zerbitzu, funtzio eta aplikazio sarearen menpe daude, eta, gerta daitezke eremu guztietan erabilgarri ez egotea; baliteke beste zehaztapen, baldintza eta tarifa batzuk aplikatzea. Informazio gehiago behar baduzu, galdetu zerbitzu-homitzaileari.

Produktuaren funtzio, ezaugarri eta bestelako zehaztasun guztiak, eta erabiltzailearen eskuliburu honetako informazioa, eguneratutako informazioan oinarrituta daude, eta gaur egun zehaztenak dira inprimatzeko unerako. Motorolak eskubidea du, aurrez jakinarazi gabe, informazioa edo zehaztapenak aldatzeko. MOTOROLA eta M logotipo estilizatua AEBko Patenteen eta Marka Erregistratuen bulegoan daude erregistratuta. MOTOBULUR eta MOTOBULUREN logotipoa Motorola, Inc-ren marka komertzialak dira. Bluetooth marka komertzialak haien jabearenak dira eta Motorola, Inc.-ek lizentziarekin erabiltzen ditu. Wireless Fidelity Alliance, Inc-ren ziurtatze-marka marka da **WiFi**. Java eta Javan oinarritutako gainerako marka guztiak Sun Microsystems, Inc.-en marka komertzialak edo marka komertzial erregistratuak dira Estatu Batuetan eta beste herrialdeetan. Google, Inc-ren marka komertzialak dira Google, YouTube, Picasa, Gmail eta Google-ren logotipoa. Facebook Facebook, Inc.-en marka komertziala da. Microsoft, Windows, Windows Me Windows Vista Microsoft Corporation-en marka komertzialak edo marka komertzial erregistratuak dira Estatu Batuetan eta beste herrialde batzuetan. Apple, Macintosh, Quicktime eta Quicktime-ren logotipoa Apple Computer, Inc.-en marka komertzialak dira. iTunes Apple Computer, Inc.-en marka komertziala da, AEBtan eta beste herrialde batzuetan erregistratua. Eskubide guztiak erreserbatuta. America Online, AOL, America Online Et Design-en logoa, AOL Et Design-en logoa eta Triangle-ren logotipoa America Online, Inc.-en marka komertzial erregistratuak dira AEBn eta/jedo beste herrialde batzuetan. Instant Messenger eta Buddy List America Online, Inc.-en marka komertzialak dira. UIQ Technology, UIQ Technology oinarri duten marka guztiak eta horien logotipoak UIQ Technology AB-ren marka komertzialak dira. Produktuen edo zerbitzuen gainerako izen guztiak beren jabeenak dira.

©2010 Motorola, Inc. Eskubide guztiak erreserbatuta.

Kontuz: Motorolak espresuki onartu gabe telefono mugikorrean aldaketak eginez gero, erabiltzailea ekipoa erabiltzeko baimenik gabe geratuko da.

Productuaren IDa: Motorola EX300

Eskuliburuaren zenbakia: 31D10DDE



2008ko Kudeaketaren Kalitatearen
Urrezko Q saria



Q Oro Premio a la Calidad de
Gestión 2008